



EBAZPENA

RESOLUCIÓN

GAIA /ASUNTO: Hauteskunde erregelamendua onestea / Aprobación de reglamento electoral

FEDERAZIOA / FEDERACIÓN: Gipuzkoako Futbol Federazioa / Federación Guipuzcoana de Fútbol

IFZ / NIF: G20156352

Euskadiko Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 4.h) artikulua xedatzen duenez, lurralde historikoetako foru organoei dagokie *“lurralde historikoko kirol federazioak onartzea, haiei laguntzea, finantzatzea, haietan esku hartzea eta kontrolatzea beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzeko, betiere beren jarduera pribatua kaltetu gabe”*.

Alde horretatik, 39.1 g) artikuluan xedatutakoaren arabera, kirol federazioek, eskuordez, burutzen duten administrazio-egiteko publikoetako bat da bere estatutuak eta araudiak onartzea, eta egiteko hori, ikusi dugunez, eskumena duen tutoretza Administrazioak kontrolatzen du. Kontrol hori, besteak beste, gauzatzen da administrazioak dagokion onespena emanaz federazioen estatutuei eta araudiei, aipatutako martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, 45.2 artikuluan jasotzen duen moduan: *“Lurralde federazioen estatutu eta erregelamenduek publizitate-baldintza berdinak bete beharko dituzte, baina publizitatea, federazioaren egoitza elektronikoan ez ezik, lurralde historikoko foru-organismoaren egoitza elektronikoan ere argitaratu beharko da”*.

Hauteskunde prozesuen kontrolari dagokionez, federazioek eskuordetzan betetzen duten administrazio izaerako funtzio publikotzat hartzeaz gain —horrek berekin dakarrenarekin—, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urriaren 22ko Aginduak, EAEko eta lurraldeetako kirol-federazioen hauteskunde-erregelamendua prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituenak, kirol gaitako administrazio eskumendunei esleitzen dizkie hauteskunde prozesu horietako babes eta kontrol gaitasun batzuk, batik bat, hauteskunde araudiak onestea.

El artículo 4 h) de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, dispone que es competencia de los órganos forales de los Territorios Históricos *“la aprobación de las federaciones deportivas del territorio histórico, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada”*.

En este sentido, el artículo 39.1 g) del mencionado texto legal dispone que una de las funciones públicas de carácter administrativo que ejercen, por delegación, las federaciones deportivas es la aprobación de sus estatutos y reglamentos, función que, según hemos visto, está sometida al control de la Administración de tutela competente. Este control se manifiesta, entre otros modos, mediante la preceptiva aprobación administrativa de los estatutos y reglamentos federativos, tal como recoge el artículo 45.2 de la ya citada Ley 2/2023, de 30 de marzo, cuando señala que: *“Los estatutos y reglamentos de las federaciones territoriales deberán cumplir los mismos requisitos de publicidad excepto que la publicación será, además de la federativa, en la sede electrónica del correspondiente órgano foral del territorio histórico”*.

En lo que al control de los procesos electorales se refiere, además de considerarse una función pública de carácter administrativo que las federaciones ejercen por delegación, con lo que ello implica, la Orden de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística de 22 de octubre de 2024, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales, atribuye a las Administraciones competentes en materia de deportes una serie de facultades de tutela y control en relación con dichos procesos electorales, entre las que destaca la de aprobar los reglamentos electorales.



Horri dagokionez, aipatutako aginduaren 5. artikulua honako hau dio:

“1.– Kirol-federazioek hauteskunde-erregelamendu bat izango dute ezinbestez. Ezin izango da hasi hauteskunde-prozesua, harik eta hauteskunde-erregelamenduaren administrazio-baimena, esanbidez zein isilbidez, onartu arte eta erregistro-inkripzioa egin arte. Edonola ere, Agindu honen hirugarren xedapen gehigarrian aurreko hauteskunde-erregelamenduen eta estatutuen aplikazioari buruz xedatutakoa kontuan hartuko da.

...

3.– Lurraldeetako kirol-federazioen hauteskunde-erregelamenduaren proiektua kasuan kasuko batzar orokorrak onartu beharko du, eta dagokion foru-aldundiko kirolaren gaineko organo eskudunera igorri beharko da, bertan behin betikoz onartzeko.

...

5.– Organo eskudunak erabakiko du aurkeztutako proiektua legearekin bat ote datorren. Legea betetzen bada, erregelamendua onartu egingo da, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroa igorriko da, hark inskribatu dezan (helbide elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/erregistroa/kirol-erakundearen-erregistroa/web01-tramite/eu/>), bertan zehazten diren baldintzen eta agirien arabera. Horrela ez bada, dagokion kirol-federazioari eskatuko dio aurkitutako akatsak zuzentzeko (...).

9.- Hauteskunde-erregelamenduak, administrazioan onartu eta EAeko Kirol Erakundearen Erregistroan izena emandakoan, dagokion kirol-federazioaren web-orrian argitaratuko dira. Gainera, EAeko federazioen hauteskunde-erregelamenduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zuzendaritza egokiaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira, eta lurralde-federazioetako hauteskunde-erregelamenduak lurralde historikoko foru-organo egokiko egoitza elektronikoa argitaratu beharko dira. Bi euskarrietan osorik argitaratu arte, ez dira indarrean egongo.

Aurreko agindu horiek betez, aipatutako Federazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuan aurkeztu du, honek bere onspen administratiboa eman dezan, bere

A este respecto, el artículo 5 de la mencionada orden señala lo siguiente:

“1.– Las federaciones deportivas dispondrán necesariamente de un reglamento electoral. No podrá iniciarse el proceso electoral hasta la aprobación administrativa, tácita o expresa, e inscripción registral del reglamento electoral. Lo anterior se entiende sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición adicional tercera de la presente Orden sobre la aplicación de estatutos y reglamentos electorales anteriores.

...

3.– El proyecto de reglamento electoral de las federaciones deportivas territoriales será aprobado por la Asamblea General respectiva y deberá ser remitido al órgano competente en materia de deportes de la Diputación Foral correspondiente para su aprobación definitiva.

...

5.– El órgano correspondiente apreciará si el proyecto presentado es conforme a la legalidad. En caso afirmativo aprobará el reglamento y procederá a remitirlo, para su inscripción, al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco, cuya dirección electrónica es <https://www.euskadi.eus/registro/registro-entidades-deportivas/web01-tramite/es/> siguiendo los requisitos y documentación especificada en la misma. En caso contrario, requerirá a la federación deportiva la subsanación de los defectos detectados (...).

9.- Los reglamentos electorales, una vez aprobados administrativamente e inscritos en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, se publicarán en la página web de la correspondiente federación deportiva. Además, los reglamentos electorales de las federaciones vascas se publicarán en la sede electrónica de la dirección correspondiente de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los reglamentos electorales de las federaciones territoriales deberán publicarse en la sede electrónica del correspondiente órgano foral del territorio histórico. No surtirán efectos hasta su integra publicación en ambos soportes.”

En cumplimiento de los preceptos citados, la Federación antes citada ha presentado, para su aprobación administrativa ante este Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral



batzar nagusiak onartutako hauteskunde erregelamendua.

Erregelamendu hori aztertu ondoren, Kirol Zerbitzuak txosten bat egin du, kirol-araudiarekin bat datorrela adieraziz, eta onestea proposatu du.

Horiek horrela, 48/2024 Foru Dekretuak, urriaren 1ekoak, emandako ahalmenaz baliatuta, Kiroletako zuzendari nagusiak

EBAZTEN DU

Lehenengo.- Onestea goiburuan aipatutako federazioaren hauteskunde erregelamendua.

Bigarren.- Aipatutako hauteskunde erregelamendua ebazpen honen I. eranskin gisa eranstea.

Hirugarren.- Agintzea osorik argitaratzea honako web-orrian: <https://kirolak.gipuzkoa.eus/>.

Laugarren.- Erregelamendua Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistrora bidaltzea, bertan inskribatua izan dadin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesdunek ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaioke Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

de Gipuzkoa, el reglamento electoral aprobado por su asamblea general.

Examinado dicho reglamento por el Servicio de Deportes, ha emitido un informe en el que lo considera conforme a la normativa deportiva y propone su aprobación.

En su virtud, la directora general de Deportes, en el ejercicio de la competencia otorgada mediante el Decreto Foral 48/2024, de 1 de octubre,

RESUELVE

Primero. - Aprobar el reglamento electoral de la federación indicada en el encabezamiento.

Segundo. – Anexar el referido reglamento electoral como Anexo I a la presente resolución.

Tercero. - Ordenar su publicación íntegra en la siguiente página web: <https://kirolak.gipuzkoa.eus/>.

Cuarto. - Remitir el reglamento aprobado al Registro de Entidades Deportivas del País Vasco a los efectos de su inscripción.

La presente resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer frente a la misma RECURSO DE ALZADA ante el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes en el plazo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Kiroletako zuzendari nagusia / La directora general de deportes



I. ERANSKINA / ANEXO I

HAUTESKUNDE ERREGELAMENDUA

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

ATARIKO KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Erregelamenduaren xedea da federazio honen hauteskunde araubidea ezartzea.

2. artikulua

Federazio honetan egiten diren hauteskunde prozesuak ondorengo arauak xedatutakoaren arabera garatuko dira: 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzkoa; 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioei buruzkoa; 2024ko urriaren 22ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, EAEko eta lurraldeetako kirol federazioen hauteskunde erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak eta gainerako erregelamenduzko xedapenak finkatzen dituena; Federazioaren estatutuak; erregelamendu hau, eta federazioaren organoek behar bezala hartutako erabakiak.

3. artikulua

1. Hauteskunde erregelamendu honetan aurreikusitako epeak, kontrarik ezartzen ez badute, egun baliodunei dagozkie beti, larunbatak, igandeak eta jaiegunak alde batera utzita.

2. Abuztua ez da balioduntzat joko hauteskunde ondorioetarako.

I. KAPITULUA. HAUTESKUNDE PROZESUAREN ZABALKUNDEA

4. artikulua

Federazioaren web orriko iragarkien taula elektronikoa iragarriko da hauteskunde prozesuaren hasiera, eta iragarpen hori zabaltzeko jakinarazpena bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari; eta hori guztia, beste hedabide osagarrietan argitaratzeko aukera eragotzi gabe.

REGLAMENTO ELECTORAL

FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE FÚTBOL

CAPÍTULO PRELIMINAR. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

El objeto del presente Reglamento es establecer el régimen electoral de esta Federación.

Artículo 2.

Los procesos electorales que se lleven a cabo en esta Federación se desarrollarán siguiendo lo dispuesto en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, en el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, en la Orden de 22 de octubre de 2024, de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales y demás disposiciones reglamentarias; en los Estatutos de la Federación, en el presente Reglamento y en los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

Artículo 3.

1. Los plazos previstos en este reglamento electoral que no establezcan lo contrario se refieren siempre a días hábiles, quedando excluidos los sábados, domingos y festivos.

2. El mes de agosto no se considerará hábil a efectos electorales.

CAPÍTULO I. DIFUSIÓN DEL PROCESO ELECTORAL

Artículo 4.

El anuncio del inicio del proceso electoral de esta Federación se efectuará en el tablón electrónico de anuncios de la página web de la Federación y se comunicará al Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa para su difusión. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la posibilidad de publicación en otros medios complementarios.



5. artikulua

Federazioaren web orriko iragarki-taula elektronikoa, hauteskunde prozesuari buruzko dokumentazio guztia ere argitaratu eta erakutsiko da, bai eta prozesu horretan organo eskudunek har ditzaketen erabaki guztiak ere.

6. artikulua

Hauteskunde Batzordeak hauteskunde prozesu osoari buruzko informazio nahikoa bermatuko die Federazioko kide guztiei, dagozkien eskubide guztiak baliatu ahal izan ditzaten.

7. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak, Federazioaren idazkaritzaren bidez, hauteskunde prozesua behar bezala zabalteko eta behar bezala garatzeko behar diren baliabide material eta giza baliabide guztiak emango dizkio Hauteskunde Batzordeari.

II. KAPITULUA. HAUTESKUNDE BATZORDEA

8. artikulua

Batzar Nagusiak, hauteskunde prozesua hasi aurretik egindako azken bileran, Hauteskunde Batzordeko kideak aukeratuko ditu kargurako hautagai aurkeztutako guztien artean edo federatutako pertsona fisiko eta juridikoen artean egindako zozketa publiko bidez, hautagairik aurkeztu ezean. Hauteskunde Batzorde hori hauteskunde izapide guztiak betetzeaz eta horiek zuzentzeaz arduratuko den organoa izango da, eta hori guztia zuzenbidearekin bat datorrela zainduko du.

9. artikulua

Hauek dira Hauteskunde Batzordearen eginkizunak:

- Hauteskunde egutegia onartzea.
- Aurkeztutako hautagai-zerrendak onartzea eta aldarrikatzea.
- Bere erabakien aurkako berraztertze errekurtsoak eta hauteskunde mahaiaren erabakien aurkako gora jotzeko errekurtsoak ebaztea.

Artículo 5.

En el tablón electrónico de anuncios de la página web de la Federación se publicará y expondrá también toda la documentación referente al proceso electoral, así como todos los acuerdos que en el transcurso del mismo pueden adoptar los órganos competentes.

Artículo 6.

La Junta Electoral garantizará a todas las personas que pertenecen a esta Federación la información suficiente sobre todo el proceso electoral con el fin de que puedan ejercer todos los derechos que les correspondan.

Artículo 7.

La Junta Directiva, mediante la secretaria de la Federación, proporcionará a la Junta Electoral todos los medios materiales y recursos humanos necesarios para la suficiente difusión de este proceso electoral y su correcto desarrollo.

CAPITULO II. JUNTA ELECTORAL

Artículo 8.

La Asamblea General, en la última reunión previa al inicio del proceso electoral elegirá a los miembros de la Junta Electoral entre los candidatos al puesto que se presenten al mismo o mediante sorteo público efectuado entre las personas físicas y jurídicas federadas en el caso de no presentarse nadie. Dicha Junta Electoral será el órgano encargado de que se cumplan todos los trámites electorales y de velar por su corrección, guardando que todo ello sea ajustado a derecho.

Artículo 9.

Son funciones de la Junta Electoral las siguientes:

- Aprobar el calendario electoral.
- Admitir, y proclamar las candidaturas presentadas.
- Resolver los recursos de reposición contra sus propios acuerdos y los de alzada contra los de la mesa electoral.



d) Hauteskundeetako lege-agindu eta arau aplikagarri guztiak interpretatzea eta aplikatzea.

e) Boto-paperen, gutun-azalen, hautagai-zerrenden eta beste edozein hauteskunde agiriren ereduak onartzea.

f) Hauteskunde ekitaldiak federazioaren egoitzatik kanpoko lokaletan egiteko baimena ematea.

g) Egiten zaizkien kontsultei erantzutea.

h) Federazioko diziplina-batzordeari informazioa ematea hauteskunde prozesuan zehar gertatu diren eta federazioko diziplina-espedientea eragin dezaketen gertakariei buruz.

i) Hauteskunde Mahaia izendatzea.

j) Egiatzea, alde batetik, kirol klubek Batzar Nagusian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta, bestetik, boto haztatua egonez gero, zenbat boto dagozkion kirol klub bakoitzari.

k) Hauteskunde prozesuarekin zuzenean lotutako beste edozein gai.

10. artikulua

1. Hauteskunde Batzordea hiru kidek osatuko dute, dagozkien ordezkoeekin, eta hautagai-zerrendetan parte hartuko ez duten artetik aukeratuko dira.

2. Batzordeko lehendakaria kide zaharrena izango da, eta idazkaria, berriz, kide gazteena.

3. Hauteskunde Batzordearen bilkura balio osoz eratzeko, bi kide bertaratu beharko dira. Kideetako bat ere ez bada bilkurara joaten, administrazio-organoak premiazko neurriak hartuko ditu ordezkoen esku-hartzea bermatzeko.

4. Hauteskunde Batzordearen erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta lehendakariaren botoa kalitatekoa izango da. Aurkako boto partikularrik egilea salbuetsiko du gehiengoaren erabakiak sor ditzakeen erantzukizunetatik.

11. artikulua

d) Interpretar y aplicar todos los preceptos y normas legales electorales aplicables.

e) Aprobar los modelos de las papeletas de voto, sobres, presentación de candidaturas y cualquier otro documento electoral.

f) Autorizar la realización de los actos electorales en locales diferentes a la sede federativa.

g) Resolver las consultas que se les formule.

h) Informar al comité disciplinario federativo sobre aquellos hechos ocurridos durante el proceso electoral que pudieran ser objeto de expediente disciplinario federativo.

i) Designar la Mesa Electoral.

j) Verificar que los clubes deportivos cumplen los requisitos para formar parte de la Asamblea General y, en el supuesto de que exista voto ponderado, cuántos votos corresponden a cada club deportivo.

k) Cualesquiera otras cuestiones directamente relacionadas con el proceso electoral.

Artículo 10.

1. La Junta Electoral estará compuesta por tres personas con sus correspondientes suplentes, entre las personas que no vayan a formar parte de candidaturas.

2. Será presidente o presidenta de la Junta el miembro de más edad y secretario o secretaria el miembro de menor edad.

3. Para constituirse válidamente la sesión de la Junta Electoral será precisa la asistencia de dos de sus miembros. En caso de que ninguno de sus componentes asista a la sesión, el órgano de administración adoptará las medidas oportunas de manera urgente para garantizar la intervención de las personas suplentes.

4. Los acuerdos de la Junta Electoral se adoptarán por mayoría de votos, siendo de calidad el voto del presidente o presidenta. El voto particular discrepante eximirá a la persona autora de sus posibles responsabilidades que pudiera originar el acuerdo mayoritario.

Artículo 11.



Huteskunde Batzordearen erabakiak, hasiera batean, Huteskunde Batzordean bertan aurkaratu ahal izango dira, bi egun balioduneko epean, erabaki horiek jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

12. artikulua

1. Huteskunde Batzordeak, kideek berriaz hala erabakiz gero, bere erabakiak jakinarazi ahal izango ditu posta arruntez, posta elektronikoz, faxez edo erabakiak jasotzea bermatzen duen antzeko beste edozein bide tekniko erabiliz.

2. Huteskunde Batzordearen erabakiak Federazioaren web orriko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko dira beti.

13. artikulua

Huteskunde Batzordeak bere erabakien aurrean aurkeztutako errekurtsuak ebazteko hartzen dituen erabaki guztiak errekurritu ahal izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean.

14. artikulua

Huteskunde Batzordearen bilkura bakoitzaren akta egingo da, bertaratutakoek sinatuta.

15. artikulua

Huteskunde Batzorderako izendatutako pertsonak behartuta daude kargua onartzera, eta federazio-betebehar hori betetzeko ezintasuna behar bezala egiaztatzen dutenak salbuetsiko dira kargu horretatik; bestela, kirol-arloko arau-haustea egingo dute.

III. KAPITULUA. HAUTESKUNDE MAHAIA

16. artikulua

Huteskunde Batzordeak huteskunde mahai bat izendatuko du, Batzar Nagusiak egin behar duen administrazio-organoaren hautaketan esku hartzeko, hautagai-zerrenda bat baino gehiago egonez gero.

17. artikulua

Huteskunde Mahaiak eginkizun hauek izango ditu:

Los acuerdos de la Junta Electoral serán inicialmente impugnables ante la propia Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles a contar desde el siguiente a su notificación.

Artículo 12.

1. La Junta Electoral, por acuerdo expreso de sus miembros, podrá notificar sus acuerdos mediante correo postal, electrónico, fax y cualquier otro medio técnico análogo que garantice su recepción.

2. Los acuerdos de la Junta Electoral se publicarán en todo caso en el tablón electrónico de la página web de la Federación.

Artículo 13.

Todos los acuerdos adoptados por la Junta Electoral resolviendo los recursos presentados ante sus acuerdos serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el término de siete días hábiles.

Artículo 14.

De cada una de las sesiones de la Junta Electoral se levantará acta de la misma, firmada por las personas asistentes.

Artículo 15.

Las personas designadas para la Junta Electoral están obligadas a aceptar el cargo, quedando dispensados de la misma quienes acrediten suficientemente su imposibilidad para cumplir con esta obligación federativa, incurriendo, en caso contrario, en infracción deportiva.

CAPITULO III. MESA ELECTORAL

Artículo 16.

La Junta Electoral designará una Mesa Electoral para intervenir en la elección del órgano de administración por la Asamblea General si hubiera más de una candidatura.

Artículo 17.

La Mesa Electoral contará con las siguientes funciones:



a) Bozketa bakoitza behar bezala egiten dela zaintzea, boto-emaileen nortasuna eta hautesle izaera egiaztatuz.

b) Emandako botoen baliozkotasunari buruz ebaztea.

c) Bozketaren zenbaketa egitea.

d) Bozketetan eta botoen zenbaketan gertatutako edozein gorabehera ebaztea.

18. artikulua

1. Hauteskunde Mahaia hiru kidek osatuko dute, dagozkien ordezkoekin. Mahaiburua kide zaharrena izango da, eta idazkaria, berriz, kide gazteena. Hauteskunde Batzordeak izendatuko ditu, zozketa bidez, hautagai izango ez diren hautesleen artean, eta nahikoa izango da horietako bi bertan egotea baliozko eran eratzeko.

2. Izendapen hori nahitaez onartu beharko da.

19. artikulua

Hauteskunde Mahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta lehendakariak kalitateko botoa izango du berdinketa gertatuz gero. Erabakiak Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira, jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo bi egun baliodunetan.

20. artikulua

Aktan gehiengoaren erabakiarekin bat ez datozen botoak agertzen badira, boto-emaile horiek erabakiaren erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira.

21. artikulua

Hauteskunde Mahaiaren erabaki guztiak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta Federazioaren web orriko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko dira.

IV. KAPITULUA. HAUTESLE ERROLDA

22. artikulua

a) Velar por el correcto desarrollo de cada votación comprobando la identidad de las personas votantes y su condición de electoras.

b) Resolver sobre la validez de los votos emitidos.

c) Efectuar el escrutinio de la votación.

d) Resolver cualquier incidencia surgida en las votaciones y en el escrutinio.

Artículo 18.

1. La Mesa Electoral, estará compuesta por tres miembros, con sus respectivos suplentes, siendo su presidente o presidenta el miembro de mayor edad y el secretario o secretaria el miembro de menor edad. Serán nombrados por la Junta Electoral mediante sorteo entre las personas electoras que no vayan a ser candidatas, bastando la presencia de dos de ellas para su válida constitución.

2. Esta designación será de aceptación obligada.

Artículo 19.

Los acuerdos de la Mesa Electoral se adoptarán por mayoría de votos, contando el presidente o presidente con voto de calidad en caso de empate, siendo sus decisiones recurribles ante la Junta Electoral en los dos días hábiles siguientes a su notificación o, en su caso, publicación.

Artículo 20.

Los votos discrepantes del acuerdo mayoritario que así consten en el acta correspondiente, eximirán a sus autores de responsabilidad.

Artículo 21.

Todos los acuerdos de la Mesa Electoral se notificarán a las personas interesadas y se publicarán en el tablón electrónico de anuncios de la página web de la Federación.

CAPITULO IV. EL CENSO ELECTORAL

Artículo 22.



Batzarkideak hautatzeko prozesurik ez dagoen heinean, eta Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordea aukeratzen duen heinean, ez da hautesle erroldarik egingo eta onartuko. Kasu honetan, Hauteskunde Batzordeak egiaztatuko du zein kirol-klubek, kirol sozietate anonimok eta kirol-elkartek betetzen dituzten batzarkide izateko baldintzak, eta Zuzendaritza Batzordeko hautagai-zerrendetako kideek baldintzak betetzen dituzten.

V. KAPITULUA. POSTA BIDEZKO BOTOA ETA BOTOA ESKUORDETZEA

23. artikulua

Zuzendaritza Batzordea hautatzeko, ezin izango da posta bidezko botorik eman Batzar Nagusian, eta nahitaezkoa izango da boto-emailea hautestontzian agertzea.

24. artikulua

1. Botoa emateko eskubidea norberarena eta besterenezina da.
2. Batzarkideek ezin izango dute beste inor eskuordetu botoa emateko, federatua izan edo ez.
3. Kirol-klub edo kirol-elkarte baten ordezkari gisa botoa ematen duen pertsona fisikoak ezin izango du beste kirol-erakunde baten aldeko botorik eman.

VI. KAPITULUA. ARTEKARIAK

25. artikulua

Hautagai-zerrenda orok artekari bat izendatu ahal izango du hauteskundeetako bozketarako eta boto-zenbaketarako. Pertsona hori adinez nagusia izango da, eta legezko eskubide guztiak izango ditu. Artekari horrek hautagai-zerrendaren ordezkari izango du hauteskunde ekitaldi horietan.

26. artikulua

Izendapen hori zuzenbidean baliozko den edozein bide erabiliz egiaztatu ahal izango da, baldin eta izendapen hori badela eta noraino iristen den modu fidagarrian jasota uzten badu.

27. artikulua

Artekariak hauteskunde mahaiaren ondoan egoteko eskubidea izango dute bozketaren eta boto

En la medida que no hay proceso de elección de assembleístas y en la medida que es la Asamblea General quien elige la Junta Directiva, no se elaborará y aprobará censo electoral. En este caso, será la Junta Electoral la que verificará qué clubes deportivos, sociedades anónimas deportivas y agrupaciones deportivas cumplen los requisitos para ser assembleístas y si las personas integrantes de las candidaturas de la Junta Directiva reúnen los requisitos reglamentarios.

CAPITULO V. VOTO POR CORREO Y DELEGACIÓN DE VOTO

Artículo 23.

No se permitirá el voto por correo en el seno de la Asamblea General para la elección de Junta Directiva, resultando obligatoria la comparecencia personal del votante ante la urna electoral.

Artículo 24.

1. El ejercicio del derecho a votar es personal e intransferible.
2. Ninguna persona assembleísta podrá delegar en otra persona, federada o no, para la emisión del voto.
3. La persona física que vote en representación de un club deportivo o agrupación deportiva no podrá votar por otra entidad deportiva.

CAPITULO VI. PERSONAS INTERVENTORAS

Artículo 25.

Toda candidatura podrá designar una persona interventora para el acto de la votación y escrutinio electorales, que deberá ser una persona mayor de edad y en plenitud de sus derechos legales, ostentando esta persona interventora la representación de la candidatura en estos actos electorales.

Artículo 26.

Esta designación podrá acreditarse mediante cualquier medio válido en Derecho que deje constancia fidedigna de su existencia y alcance.

Artículo 27.

Las personas interventoras tendrán derecho a estar junto a la Mesa Electoral en el momento de la



zenbaketaren unean, eta aktan jaso ahal izango dituzte egokitzat jotzen dituzten alegazioak edo erreklamazioak.

28. artikulua

Artekariak beren izaera egiaztatu beharko dute Hauteskunde Mahaiaren aurrean, ahalordetzea eta Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo antzeko identifikazio agiri bat erakutsiz.

VII. KAPITULUA. ERREKURTSOAK

29. artikulua

Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsiak Hauteskunde Batzordeari berari zuzendu beharko zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkionak izan ezik. Errekurtsiak idatziz aurkeztuko dira, interesdunaren datu pertsonalekin eta, hala badagokio, izan dezakeen ordezkariarekin.

30. artikulua

1. Hauteskunde Batzordeak gehienez ere lau egun balioduneko epean ebatziko du, errekurtsio aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Errekurtsioa hauteskunde-egutegian adierazitako epean ebazten ez bada, ezetsizat joko da, eta dagokion errekurtsio-bidea irekiko da.

3. Berraztertze hauteskunde-errekurtsioak ebazten dituzten Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio-bidea agortzen dute, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean errekurtsio ahal izango dira.

4. Hauteskunde Batzordeari dagokio organo eskudunen hauteskunde-erabakiak betearaztea, federazioko organo egokien beharrezko laguntzarekin.

5. Hauteskunde Batzordearen erabakiak betearazleak izango dira.

6. Egintza jakin batzuk deuseztatuz gero, gorde egingo dira irregulartasuna egin ez balitz berdin mantenduko ziren edukia eta izapideak.

VIII. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIAREN OSAERA

votación y el escrutinio, pudiendo hacer constar en acta las alegaciones o reclamaciones que considere oportunas.

Artículo 28.

Los interventores e interventoras deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral exhibiendo el apoderamiento y el Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento identificativo análogo.

CAPITULO VII. RECURSOS

Artículo 29.

Los recursos contra los acuerdos de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral deberán dirigirse a la propia Junta Electoral salvo los que competan al Comité Vasco de Justicia Deportiva. Los recursos se presentarán por escrito con los datos personales del interesado y la representación que, en su caso, pueda ostentar.

Artículo 30.

1. La Junta Electoral resolverá en el plazo máximo de cuatro días hábiles desde el día siguiente a la presentación del recurso.

2. En caso de que el recurso no fuera resuelto en el plazo indicado en el calendario electoral se considerará desestimado, quedando expedita la vía de recurso que corresponda.

3. Las resoluciones de la Junta Electoral que resuelvan recursos electorales de reposición agotan la vía federativa y podrán ser recurridos ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

4. La ejecución de las decisiones electorales de los órganos competentes corresponde a la Junta Electoral con la colaboración necesaria de los órganos federativos pertinentes.

5. Las decisiones de la Junta Electoral tendrán carácter ejecutivo.

6. La anulación de determinados actos implicará la conservación de aquellos contenidos y trámites que se hubieran mantenido igual de no haberse cometido la irregularidad.

CAPITULO VIII. COMPOSICIÓN DE LA ASAMBLEA GENERAL



31. artikulua

Federazioaren Batzar Nagusia Hauteskunde Batzordearen ebazpen bidez eratuko da, eta lau urtean behin egingo da, udako joko olinpikoak egiten diren urteetan.

32. artikulua

1. Batzar Nagusian kirol-klubak, sozietate anonimoak eta kirol-elkarteak bakarrik egongo dira ordezkatura.

2. Batzarkidea pertsona juridikoa da, ez haren ordezkari gisa jarduten duen pertsona fisikoa.

33. artikulua

1. Batzar Nagusiko kide izango dira aurreko artikuluan aipatutako kirol entitateak, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte: EAEko Kirol Erakundearen Erroldan izena emanda egotea eta Federazioko kide izatea; olinpiar urteko bigarren seihilekoari dagokion denboraldian gutxienez jardunean dauden 10 lizentzia izatea, eta aurreko denboraldian ere eduki izatea eta, gainera, denboraldi horretan kirol jarduera nabarmena egin izana.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira ikasle adinako kirol lizentziak.

3. Artikulu honen lehenengo apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kirol jarduera nabarmentzat hartuko da kirol-lehiaketa federatu ofizialetan edo lagunartekoetan parte hartzea, baldin eta azken horietan dagokion federazioak erakunde antolatzaile, babesle edo laguntzaile gisa esku hartu badu. Ondorio horietarako, erakunde batek parte hartu duela ulertuko da kirol-ekitaldi ofizial edo lagunartekoren bat antolatzen badu, baldin eta lagunarteko ekitaldi horretan federazioak erakunde antolatzaile, babesle edo laguntzaile gisa esku hartzen badu.

4. Batzar Nagusian boto haztatua izango da honako irizpide hauen arabera:

Artículo 31.

La Asamblea General de la Federación se conformará por resolución de la Junta Electoral y con carácter ordinario cada cuatro años coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de verano.

Artículo 32.

1. En la Asamblea General estarán representados únicamente los clubes deportivos, sociedades anónimas y las agrupaciones deportivas.

2. La condición de asambleísta la ostenta la persona jurídica, no la persona física que actúa como su representante.

Artículo 33.

1. Formarán parte de la Asamblea General las entidades deportivas citadas en el artículo precedente que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y afiliadas a la Federación, tengan al menos 10 licencias en vigor durante la temporada correspondiente al segundo semestre del año olímpico y que la hayan tenido en la temporada anterior y, además, hayan realizado actividad deportiva significativa en ese periodo.

2. A los efectos de lo previsto en el apartado anterior, se computarán las licencias de deporte en edad escolar.

3. A los efectos de lo previsto en el apartado primero de este artículo se entenderá por actividad deportiva significativa la participación en el seno de competiciones deportivas federadas oficiales o amistosas, siempre que en estas últimas la Federación correspondiente haya intervenido en calidad de entidad organizadora, patrocinadora o colaboradora. A tales efectos, se considerará que una entidad ha participado si organiza algún evento deportivo oficial o amistoso, siempre que en dicho evento amistoso la Federación intervenga como entidad organizadora, patrocinadora o colaboradora.

4. En la Asamblea General existirá voto ponderado con arreglo a los siguientes criterios:



- 10 eta 50 lizentzia artean dituzten eta azken bi denboraldietan lehiaketetan parte hartu duten klubek BOTO BAT izango dute.
- 51 eta 200 lizentzia artean, HIRU BOTO.
- 201 lizentziatik gora, BOST BOTO.

5. Kirol klubek beren boto haztatuari dagokion boto-paper kopurua jasoko dute Hauteskunde Batzordetik.

6. Behin boto haztatua ezarrita klubaren kirol egoera aldatuta ere, lau urteko agintaldian klubaren boto haztatua ez da aldatuko.

IX. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA HAUTATZEA

34. artikulua

1. Federazioaren Batzar Nagusia osatzen duten pertsonen aukeratuko dute Zuzendaritza Batzordea.

2. Hautagarriak izango dira hauteskunde-deialdia onartzen den unean hemezortzi urte baino gehiago duten pertsona fisikoak, izan kirolari, entrenatzaile edo epaileak, federatuta daudenak edo hauteskunde prozesuaren hasi aurreko azken 25 urtean federatuta egon direnak. Era berean, kirol-klubak, kirol-sozietate anonimoak eta kirol-elkarteak ere hautagarriak izango dira.

3. Klubaren estamentuko hautagaien kasuan, haien ordezkariaren datuak jasoko dira haiek hautatzeko. Izendatutako pertsona aldi osorako izango da, eta klubak ezin izango du aldatu, dimisioa, desgaitasuna edo heriotza kasuetan izan ezik.

3. Hauteskunde Batzordeak, Federazioaren administrazio-zerbitzuen laguntzarekin, egiaztatuko du hautagai-zerrendetako kide guztiek federazio-afiliazioaren baldintza betetzen dutela.

35. artikulua

1. Zuzendaritza Batzordeko hautagai-zerrendek federazioko estamentu guztietako ordezkariak izan beharko dituzte. Pertsona fisikoen estamentu bat pertsona fisiko batek baino gehiagok ordezkatzeko badute Zuzendaritza Batzordean, estamentu

- Los clubes que dispongan entre 10 y 50 licencias, que hayan competido durante las dos últimas temporadas, tendrán UN VOTO.
- Entre 51 y 200 licencias, TRES VOTOS.
- A partir de 201 licencias, CINCO VOTOS.

5. Los clubes deportivos recibirán de la Junta Electoral el número de papeletas correspondiente a su voto ponderado.

6. La modificación de la situación deportiva de los clubes en orden al establecimiento del voto ponderado no obligará a modificar el citado voto ponderado a lo largo del mandato de cuatro años.

CAPITULO IX. ELECCIÓN DE LA JUNTA DIRECTIVA

Artículo 34.

1. La Junta Directiva será elegida por las personas integrantes de la Asamblea General de la Federación.

2. Tendrán la condición de elegibles las personas físicas, sean deportistas, entrenadores o entrenadoras, jueces o juezas, mayores de dieciocho años en el momento de aprobación de la convocatoria de elecciones, que sean federadas o que lo hayan sido en los últimos 25 años a contar desde el inicio del proceso electoral. Igualmente, serán elegibles los clubes deportivos, sociedades anónimas deportivas y las agrupaciones deportivas.

3. En el caso de candidatos pertenecientes al estamento de clubes, se consignarán los datos de su representante a efectos de su elección. La persona designada lo será por todo el periodo y no podrá ser removida por el club, salvo dimisión, inhabilitación o fallecimiento.

4. La Junta Electoral verificará, con la colaboración de los servicios administrativos de la Federación, que todas las personas integrantes de las candidaturas cumplen el requisito de la afiliación federativa.

Artículo 35.

1. Las listas de las candidaturas de Junta Directiva deberán incluir representantes de todos los estamentos federativos. En el supuesto de que un estamento de personas físicas esté representado en la Junta Directiva por más de una persona física,



horretako gizonen eta emakumeen ordezkariak egon beharko da nahitaez.

2. Hautagai-zerrendak Hauteskunde Batzordeak prestatutako ereduari aurkeztu beharko dira, zerrenda itxi baten bidez, ordezkariak barne, zazpi egun naturaleko epean.

3. Hautagai-zerrenda kide guztiek sinatu beharko dute, Nortasun Agiri Nazionalaren edo antzeko beste agiriren baten zenbakia erantsita.

4. Hautagai-zerrendak ezin izango dira aldatu aurkeztu ondoren.

5. Aurkezten diren hautagaitza itxien zerrendek errespetatu beharko dituzte Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko urriaren 22ko Aginduak, hauteskunde erregelamenduak prestatzeko irizpideak finkatzekoak, 48.4 artikuluan aurreikusitako gizon eta emakumeen ehunekoak, federazio-organoren horretan emakumeen ordezkariak egokia ahalbidetzeko.

6. Hauteskunde Batzordeak ofizioz egiaztatu beharko du, Federazioaren administrazio-zerbitzuen laguntzarekin, hautagai-zerrendetako kideek betetzen dituztela erregelamendu honetan ezarritako baldintzak, eta, bereziki, agintaldiak mugatzeari buruzko estatutu-arauak.

36. artikulua

1. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea amaitutakoan, Hauteskunde Batzordeak horien onargarritasunari buruzko ebazpena emango du.

2. Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak onartzeko edo ez onartzeko hartzen duen erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hauteskunde Batzordeari berari, bi egun balioduneko epean.

3. Hautagai-zerrendaren batek zuzendu daitezkeen akatsak baditu, gehienez ere bi egun balioduneko epean erregularizatu ahal izango dira.

37. artikulua

Hautagai-zerrendak behin betiko onartu ondoren, Hauteskunde Batzordeak Batzar Nagusirako deia egingo du, formalki eratzeko eta, hala badagokio, hautagai-zerrendak bozkatzeko. Deialdia egingo da, nahiz eta hauteskunde-egutegian batzar-bilkuraren data agertu.

deberá existir necesariamente representación masculina y femenina de ese estamento.

2. Las candidaturas deberán presentarse, mediante lista cerrada, incluyendo los posibles suplentes, en el modelo elaborado por la Junta Electoral durante un plazo de siete días naturales.

3. La candidatura deberá ser firmada por todos sus componentes incluyendo el número de Documento Nacional de Identidad o documento análogo.

4. Las candidaturas no podrán ser modificadas una vez presentadas.

5. Las listas de candidaturas cerradas que se presenten deberán respetar los porcentajes de hombres y mujeres previstos en el artículo 48.4 de la Orden de 22 de octubre de 2024, de la Vicepresidenta Primera y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales con el fin de posibilitar una adecuada representación femenina en este órgano federativo.

6. La Junta Electoral estará obligada a verificar, de oficio, con la colaboración de los servicios administrativos de la Federación, que las personas integrantes de las candidaturas cumplen los requisitos establecidos en este Reglamento y, especialmente, las normas estatutarias sobre limitación de mandatos.

Artículo 36.

1. Concluido el plazo de presentación de candidaturas, la Junta Electoral resolverá sobre su admisibilidad.

2. La admisión o inadmisión de candidaturas por la Junta Electoral será recurrible ante la propia Junta Electoral en el plazo de dos días hábiles.

3. Si alguna candidatura contuviera errores subsanables éstos serán regularizables en el plazo máximo de dos días hábiles.

Artículo 37.

Admitidas definitivamente las candidaturas, la Junta Electoral convocará a la Asamblea General para su constitución formal y, en su caso, votación de candidaturas. Esta convocatoria se realizará, aunque ya figure la fecha de la sesión asamblearia en el calendario electoral.



38. artikulua

Batzar Nagusia eratu ondoren, beharrezkoa izanez gero, Hauteskunde Batzordeak zozketa bidez izendatuko ditu hauteskunde-mahaiko kideak, ezein hautagai-zerrendatan agertzen ez diren batzarkideen artean.

39. artikulua

1. Hautagai-zerrenda bakoitzak bozketaren aurretik parte hartu ahal izango du, bere programa azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz, kontraerantzunik eta eztabaidarik gabe.

2. Hauteskunde Mahaia zuzendutako zozketa bidez ebatziko da esku hartzeko hurrenkerara.

40. artikulua

1. Hauteskunde Mahaiko lehendakariak izen-abizenez hots egingo die batzarkideei, aukeratzen duten hautagai-zerrendaren boto-papera sar dezaten propio jarritako hautestontzian.

2. Botoa sekretua izango da, eta Hauteskunde Batzordeak emandako boto-paper ofiziala erabiliko da horretarako. Botoa emateko, hautesle bakoitzak bere nortasuna egiaztatu beharko du, nortasun-agiri nazionala, pasaportea, gidatzeko baimena edo nortasuna egiaztatzeko baliagarria den beste agiriren bat aurkeztuz. Pertsona juridikoek entitatearen idazkariak egin eta lehendakariak ontzat emandako ziurtagiri bat aurkeztuko dute, egiaztatzen duena nor den erakundearen ordezkari legala edo nork jaso duen botazioetarako ahalordea.

3. Izapide hori bete eta gero, hautesle bakoitzak boto-papera emango dio Hauteskunde Mahaiko lehendakariari, eta horrek hautetsontzian sartuko du.

41. artikulua

1. Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaia dagokion zenbaketa egingo du.

2. Baliogabeak izango dira Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako ereduaz besteko gutun-azal edo boto-paperetan emandako botoak, eta baita gutun-azalik gabeak edota hautagai-zerrenda desberdinetako boto-paper bat baino gehiago duten gutun-azaletan emandakoak ere. Gutun-azaletan hautagai-zerrenda bereko boto-

Artículo 38.

Una vez constituida la Asamblea General, si fuera necesario, la Junta Electoral designará, por sorteo, entre las personas assembleístas que no figuren en ninguna candidatura, a las personas integrantes de la mesa electoral.

Artículo 39.

1. Cada candidatura podrá intervenir antes de la votación, para exponer su programa, durante un tiempo máximo de diez minutos, sin réplicas ni debates.

2. El orden de intervención se resolverá mediante sorteo dirigido por la Mesa Electoral.

Artículo 40.

1. Para la votación la Presidencia de la Mesa Electoral llamará nominalmente a cada miembro de la Asamblea para depositar la o las papeleta/s de la candidatura elegida en la urna habilitada al efecto.

2. El voto, que será secreto, se efectuará mediante la papeleta oficial proporcionada por la Junta Electoral. Para votar, se deberá acreditar la personalidad con la presentación del documento nacional de identidad, pasaporte, permiso de conducción u otro documento análogo que le identifique. Las personas jurídicas presentarán una certificación, expedida por el secretario o secretaria de la entidad, con el Visto Bueno de la presidenta o presidente, acreditativa de quien ostenta la representación legal de la entidad o de quien ha recibido el apoderamiento para las votaciones.

3. Cumplimentado dicho trámite, cada votante entregará la papeleta a la presidencia de la Mesa Electoral quien introducirá la misma en la urna correspondiente.

Artículo 41.

1. Terminada la votación, la Mesa Electoral efectuará el escrutinio correspondiente.

2. Serán nulos los votos emitidos en sobres o papeletas diferentes del modelo oficialmente aprobado por la Junta Electoral, así como los votos emitidos en papeletas sin sobre o en sobres que contengan más de una papeleta de distinta candidatura. En el supuesto de que los sobres contengan más de una papeleta de la misma candidatura se computará como un solo voto válido.



paper bat baino gehiago baldin badago, baliozko boto bakar gisa zenbatuko da.

3. Halaber, baliozkoak izango dira boto-paperean hautagaien izenak aldatu, erantsi, markatu edo ezabatu baldin badira, edota jarrita dauden hurrenkera moldatu bada; gauza bera beste edozein aldaketa gertatu bada boto-paperean.

4. Zuriz emandako bototzat hartuko dira boto-paperik gabeko gutun-azalak edota boto-paper zuriak dituztenak.

42. artikulua

Hautagai irabazlea baliozko botoen gehiengoa lortu duena izango da, eta Federazioko lehendakari izendatuko da gehiengoa lortu duen hautagai-zerrendako burua.

43. artikulua

1. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da Hauteskunde Batzordeak erabakitzen duen egunean, eta berdinduta geratu direnak izango dira bozketa berrian hautagai.

2. Berdinketak jarraitzen badu, emakumeak buru dituzten hautagai-zerrendak aukeratuko dira.

3. Aurreko irizpidearekin berdinketa ebazterik ez badago, Hauteskunde Batzordeak, gehienez ere zazpi eguneko epean, zozketa egingo du berdindutako hautagai-zerrenden artean.

44. artikulua

Hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak aurkezteko beste epe bat irekiko du, eta egutegia aldatuko du.

45. artikulua

Administrazio-organorako hautagai-zerrenda bakarra dagoenean, ez da bozketarik egin behar, eta Hauteskunde Batzordeak irabazletzat joko du behin betiko onartutako hautagai-zerrenda.

46. artikulua

Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaiak boto zenbaketa egingo du eta horren akta egingo du, artekariaren erreklamazioak jasota. Akta hori

3. Serán también nulos los votos emitidos en papeletas en las que se hubiera modificado, añadido, señalado o tachado nombres comprendidos en ella o alterado su orden de colocación, así como aquellas en las que se hubiera producido cualquier otro tipo de alteración.

4. Se considerarán votos en blanco aquellos sobres que no contengan papeletas o con papeletas en blanco.

Artículo 42.

Se proclamará como candidatura ganadora la que hubiera obtenido la mayoría de los votos válidos, declarando presidente o presidenta de la Federación a quien encabece la candidatura mayoritaria.

Artículo 43.

1. En caso de empate, se celebrará una nueva votación en la fecha que acuerde la Junta Electoral, siendo candidaturas elegibles en la nueva votación, quienes hubieran resultado empatadas.

2. Si persiste el empate, resultarán elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres.

3. Si no se puede resolver el empate con el criterio anterior, la Junta Electoral procederá en el plazo máximo de siete días a un sorteo entre las candidaturas empatadas.

Artículo 44.

En caso de no presentarse ninguna candidatura, la Junta Electoral volverá a abrir un nuevo plazo de presentación de candidaturas con la modificación consiguiente del calendario.

Artículo 45.

Cuando exista una sola candidatura para el órgano de administración, no será necesaria votación alguna, procediendo la Junta Electoral a proclamar a la candidatura admitida definitivamente como ganadora.

Artículo 46.

Terminada la votación, la Mesa Electoral efectuará el escrutinio y levantará acta del mismo incluyendo las reclamaciones de las personas interventoras,



Huteskunde Batzordeari bidaliko zaio, boto-paperekin batera, salbu eta Huteskunde Batzordeak Huteskunde Mahaiaren eginkizunak ere bere gain hartzen baditu.

47. artikulua

1. Huteskunde Batzordeak, zenbaketaren emaitzak eta bozketaren gorabeherak biltzen dituen akta jaso ondoren, hautagai-zerrenda irabazlearen buru den pertsona izendatuko du lehendakari behin-behinean, baita Zuzendaritza Batzordeko kideak ere.

2. Hautagai-zerrenda irabazleak behin-behinean aldarrikaturik, eta aurkeztutako erreklamazioak edo errekurtsioak ebatzi eta gero, behin betiko aldarrikapena egingo da. Hortik aurrera, hautatutako karguak bere eginkizunak burutu ahal izango ditu, jabetza-ekintza formalik egin beharrik gabe.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Federazioko lehendakariak huteskundeetarako deialdia egingo du huteskunde erregelamendua onartu ondoren, eta une horretatik aurrera jarduneko lehendakaritzat hartuko da, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak bezala.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honek kirol klub edo kirol entitateei buruz egiten dituen aipamenek kirol sozietate anonimoak eta kirol elkarteak ere hartzen dituzte barnean.

AZKEN XEDAPENA

Huteskunde erregelamendu hau Federazioaren web orrian eta kirol arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzaren egoitza elektronikoa osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioz, erregelamendu honek ez du ondorioz izango bi euskarrietan osorik argitaratu arte.

acta que se remitirá seguidamente a la Junta Electoral con las papeletas de voto, salvo que la Junta Electoral también asuma las funciones de Mesa Electoral.

Artículo 47.

1. La Junta Electoral, recibida el acta con los resultados del escrutinio y con las incidencias de la votación, proclamará provisionalmente a quien encabece la candidatura ganadora como Presidente o Presidenta y a los miembros de la Junta Directiva.

2. Una vez proclamadas provisionalmente las candidaturas ganadoras y resueltas, en su caso, las reclamaciones o recursos presentados, se realizará la proclamación definitiva. A partir de este momento, el cargo electo podrá ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

La Presidencia de la Federación efectuará la convocatoria de elecciones, una vez aprobado el reglamento electoral, considerándose a partir de este momento como presidente o presidenta en funciones al igual que el resto de la Junta Directiva.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

Las referencias que el presente Reglamento realiza a los clubes deportivos o entidades deportivas comprenden también a las sociedades anónimas deportivas y agrupaciones deportivas.

DISPOSICION FINAL

El presente Reglamento Electoral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación íntegra en la página web de la Federación y en la sede electrónica de la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencia en materia deportiva. En consecuencia, el presente Reglamento no surtirá efectos hasta su íntegra publicación en ambos soportes.

Sinadura laburpena

EB-KG-KI-2025-0073

Resumen de firmas

Izenburua | Título:

Futbol Federazioaren hauteskunde erregelamendua onestea

Aprobación reglamento electoral Federación de Fútbol

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den zuzendaritza ebazpen originalaren sinadura datuak erakusten dira.

A continuación se muestran los datos de la firma de la resolución de dirección original a la que hace referencia este documento.

Sinatzailea | Firmante:PASTOR BAÑALES, MARTA

Data | Fecha:2025eko otsailaren 6an

Dokumentu hau originalaren kopia elektronikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa. El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.



EKS | CSV: FAEB70c9fd2f-7e6a-40c4-8291-1b380895811f

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv>